

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

61/2021 Foru Agindua, urtarilaren 27koa. Blanca Nieves García Gonzalo karrerako funtzionario izendatzea, Administrazio Orokorreko eskalako administrari azpieskalan

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko lan eskaintza publikoaren oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

Otsailaren 27ko 133/2020 Foru Aginduaren bidez, praktiketako funtzionario izendatu zen hautatutako izangaia, Administrazio Orokorreko eskalan, administrari azpieskalan, eta honako lanpostu honi atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
García Gonzalo, Blanca Nieves	Herrilan-Garraio Bul. kont-aurrek. adm.	2030.002

Oinarri orokorren 12 apartatuarekin bat etorritik, balioespen batzordeak praktikaldia balioetsi du. Oinarri horien 14 apartatuarekin bat etorritik, bidezkoa da praktikaldia gainditu duten izangaiak karrerako funtzionario izendatzea eta izendapena ALHAOn argitaratzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Praktikaldia gainditu duen funtzionarioa karrerako funtzionario izendatzea, Administrazio Orokorreko eskalako administrari azpieskalan karrerako funtzionario izateko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari baitagokio; honako lanpostu honetara atxikita egongo da:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
García Gonzalo, Blanca Nieves	Herrilan-Garraio Bul. kont-aurrek. adm.	2030.002

Bigarrena. Karrerako funtzionario izendaturiko izangaiak hilabeteko epea du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bere lanpostuaz jabetzeko. Epe hori hamabost egun naturalez luza daiteke, izangaiak hala eskatzen badu eta arrazoi justifikatua badago.

Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez badu, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo ditu deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri den funtzionarioa esleitutako lanpostuari atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 27a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR